



***HONAKO TESTU BATERATU HAU INFORMATIBOA DA, ETA EZ DU ALHAON ARGITARATUTAKO TESTUEN BALIO JURIDIKORIK (letra lodiz, etzanez eta azpimarratuz nabarmentzen dira 2021eko ekainaren 15eko Mahaiaren erabakiz onartutako oinarri orokorren aldaketak)***

**2019 ETA 2017KO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZEN HAUTAKETA-PROZESUETAKO OINARRI OROKORRAK**

**1.- XEDEA**

1.1 Oinarri hauen xedea da Arabako Batzar Nagusietako Administrazio Orokorreko lanpostuak hornitzeko arau orokorrak ezartzea, zeinak dagozkien oinarri espezifikoean adieraziko baitira.

1.2 Arabako Batzar Nagusietako karrerako funtzionarioen lanpostu hutsak betetzeko hautaketa-probak lehiaketa-oposizio libreko sistema bidez egingo dira.

**2.- BALDINTZA OROKORRAK**

2.1 Izendapenak hautatutako pertsoneri Arabako Batzar Nagusietako karrerako funtzionario izaera emango die, gai horretan indarrean dauden xedapenek adierazten dituzten eskubide eta betebeharrak guztiekin.

2.2 Zerbitzua emango den destinoa hautaketa prozesua amaitzen denean dauden eta dei egindako plazari dagozkion lanpostu hutsen arabera izango da.

**3.- IZANGAIEN BETEKIZUNAK**

3.1 Oinarri espezifikoean dei egindako hautaprobetarako onartuak izateko eta, hala badagokie, haietan parte hartu ahal izateko, izangaiak, eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen, hautaketa prozesuak dirauen bitartean eta, hala badagokie, esleitzen zaien lanpostuaz jabetzeko unera arte, betekizun hauek bete behar dituzte:

a) Europar Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea edukitzea, edo, bestela, Europar Batasunak egin eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunak aplikatzearen ondorioz, langileen zirkulazio askea onartuta daukan estaturen bateko nazionalitatea edukitzea.

Halaber, Europar Batasuneko estatuetak nazionalitatea dutenen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta Zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude, bai eta haien ondorengoek eta ezkontideen ondorengoek ere, baldin eta Zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude eta ondorengoak hogeita bat urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak

b) Hamasei urte beteta edukitzea eta, hala badagokio, nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina gainditu gabe izatea.

c) Behar den besteko gaitasun funtzionala edukitzea egitekoak betetzeko, eta ez izatea eginkizunak betetzea eragotz dezakeen gaixotasunik edo akats fisiko nahiz psikikorik.

d) Dagozkion deialdi espezifikoan eskatzen den titulu ofiziala edo homologatua edukitzea, edo hura jaulkitzeko eskubideak ordaindu izana. Atzerriko tituluak badira, homologazioa egiaztatzen duen ziurtagiria beharko da.

e) Diziplina espediente bidez baztertuta ez egotea administrazio publiko, organo konstituzional edo autonomia erkidegoetako estatutuen arabera erakunderen batetik, ez eta epai bidez erabat edo bereziki ezgaituta ere enplegu edo kargu publikoak izateko edo funtzionarioen kidegora edo eskalara sartzeko. Beste Estatu bateko herritarra izanez gero, desgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, ezta diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea, dagokion Estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.

f) Indarreko araudiaren arabera ezgaitasun edo bateraezintasuneko lege kausaren batean sarturik ez izatea.

3.2 Oinarri espezifikoetan eskatutako beste edozein betekizun, euskara, informatika eta mekanografia probetarako 10.3 eta 10.4.3 oinarrian aurreikusitako salbuespenarekin.

#### 4.- ESKABIDEAK AURKEZTEA

4.1 Eskaerak aurkezteko epea eta modua:

a) Oinarri espezifikoetan zehazten diren plazak hornitzeko hautaketa prozesuetan parte hartu nahi dutenek hogeita egun naturaleko epean aurkeztu beharko dute eskaera, dagokien deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera.

b) Eskaerak Arabako Batzar Nagusien Enplegu Publikoaren Atariaren bidez aurkeztu beharko dira <https://www.jiggalava.eus/es/portal-empleo-publico> edo Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen helbide elektronikoaren bidez [www.ivap.euskadi.eus](http://www.ivap.euskadi.eus), onartutako ziurtagiri elektroniko batez identifikatuta.

Eskabidean 5. atalean aurreikusitako tasaren ordainketa telematikoa jasoko da.

Salbuespenez, onartzeko eskabidea eta gainerako agiriak Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua arabera aurkeztu ahal izango dira. 39/2015 Legeak erregistro elektronikoaz xedatzen duenak ondorioak ez dituen bitartean, onartzeko eskabidea Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusita lekuetan aurkeztu ahal izango da.

4.2 Hautaprobetarako onartuak izateko eta haietan parte hartu ahal izateko, izangaiak eskaeraren atal guztiak bete beharko dituzte. Adierazi beharko dute betetzen dituztela eskatzen diren betekizun guzti-guztiak, betiere aurkezteko epearen azken egunari erreparatuta, 10.3 eta 10.4.3 oinarrietan euskara-probetarako eta informatika eta mekanografia-ezagutzak egiaztatzeko jasotzen den salbuespen kasuan izan ezik

Horretarako, eskaerako atal egokietan adierazita egon beharko dira:

a) Eskatutako datu pertsonalak.

b) Zein plazatarako lehiatu nahi den.

c) Oposizio aldiko ariketak zein hizkuntza ofizialetan egin nahi diren, euskaraz ala gaztelaniaz.

d) Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko euskara ariketa egiteko hautua. Hautua ez da loteslea izango.

e) Titulazio akademikoa

f) Euskarazko hizkuntz eskakizunaren egiaztapena

g) IT txartelen egiaztapena



4.3 Datu pertsonalen babeserako dagoen legeria betez, hautaketa prozesuak kudeatzeko eskatzen diren datuak "Hautaketa Prozesuak" izeneko tratamendu-jardueran sartuko dira, Arabako Batzar Nagusiekin kolaboratuko duten pertsonen datuak kudeatzeko, eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubidea Arabako Batzar Nagusietara joz gauza daiteke.

dpd-dbo@jggalava.eus

Hautaketa-prozesuetan parte hartzen dutenek berariaz baimentzen dute, kontratakoea adierazi ezean, bere datu pertsonalak oinarri hauetan eta deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoean adierazitako moduan eta xedearekin, bai eta Arabako Batzar Nagusiek euskara-ezagutzen maila egiaztatu dezaten Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan, bai eta ziurtagiri eta ezagutza informatikoetarako.

Izangaiek adierazi beharko dute bere eskabidean baimentzen duten beren identifikazio-datu pertsonalak beste administrazio publikoei lagatzea, soil-soilik administrazio horiek enplegu-eskaintzak egin ahal diezazkieten legeak ezarritakoaren arabera.

- Tratamenduaren arduraduna: Arabako Batzar Nagusiak.

Tratamenduaren xedea eta erabilerak: Arabako Batzar Nagusietako langile izateko oposizioen eta lan-poltsen kudeaketa. Arabako Batzar Nagusien zerbitzuak emateko langileak hautatzeko prozesuen kudeaketa eta jarraipena, bai eta prozesu horietako parte-hartzaileei informazioa emateko. Bereziki, parte hartzeko eskaerak kudeatzea, probetarako egokitzapenen eskaerak kudeatzea, onartuen eta baztertuen zerrendak argitaratzea, probak kalifikatzea eta meritua baloratzea, prozesuekin lotutako erreklamazioak eta errekurtsioak kudeatzea, prozesuan zehar eskatzaileek emandako dokumentazioa kudeatzea, probetarako asistentzia kontrolatzea, ziurtagiriak ematea, prozesuen datu historikoak kontsultatzea, azterlanak eta estatistikak egitea, lan-poltsak kudeatzea.

- Legitimazioa: Tratamendua beharrezkoa da administrazio publikoei beren langileak hautatzeko eman zaizkion eskumena baliatzeko (Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua eta Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legea).

Datuen hartzailea: Datuak Arabako Batzar Nagusietako Idazkaritza Nagusiak tratatuko ditu, sortutako lan-poltsak kudeatze aldera eta langileen kudeaketa oso egiteko.

Aurreikusi da, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuei ere lagatzea, lan-poltsa propiorik ez dutenean. Halakoetan, interesdunek berariaz adierazi beharko dute izen-ematean baimena ematen dutela lagapen hori gauzatzeko.

## 5.- AZTERKETA ESKUBIDEAREN TASAK

Hautaketa prozesuan parte hartu nahi dutenek tasa hauek ordaindu beharko dituzte eskaerak aurkezteko epearen barruan:

Taldeak	Tarifa
A1-A2	20,00
C1-C2	15,00

Azterketa eskubidearen tasa ez da itzuliko eskatzaileari egoztekoak diren arrazoiengatik.

## 6.- IRUZURREZKO JOKABIDEEN ETA LEHIA DESLEIALAREN TRATAMENDUA



Izangaiek ezingo dute kalifikazio epaimahaiko kideekin indibidualki komunikatu hautatze-prozesuarekin erlazionatutako alderdiak jorratzeko, ez pertsonalki, ezta hirugarren pertsonen bitartez ere. Hautatze-prozesuaren inguruko gaiak idatziz planteatutako dizkiote kalifikazio epaimahaiari, zeinak, kide anitzeko organoa izaki, dagokiona erabakiko baitu.

Epaimahaiak gaitasuna izango du hautatze-prozesutik baztertzeko edozein motatako iruzurra egiten duten pertsonak, edozein probaren funtzionamendu normala eragozten dutenak edota berdintasun-, merit- eta gaitasun-printzipioen arabera lehia desleiala eragiten dutenak. Jarduketa horiek bilkuraren aktan jasoko dira.

Aurretik aipatutako printzipioak bermatze aldera, ez da onartuko hautatze-prozesuaren barruko probak egiten diren bitartean gailu edo bitarteko teknologikorik erabiltzea edota edukitzea, proba mota edozein izanda ere.

Arau horietako bat urratzen duten izangaiek, berehala baztertuko dira hala probatik, nola hautatze-prozesutik, eta, ondorioz, ez dira prozesuaren bidez sortzen den lan-poltsan sartuko.

## **7.- IZANGAIK ONARTZEA. ERREKLAMAZIOAK**

7.1. Behin eskaerak egiteko epea amaituta, eta gehienez ere hilabeteko epean, Arabako Batzar Nagusietako Mahaiak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak onartuko ditu eta Arabako Batzar Nagusien helbide elektronikoan <https://www.jiggalava.eus/es/portal-empleo-publico> eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearenean [www.ivap.euskadi.eus](http://www.ivap.euskadi.eus) argitara emango dira. Zerren horretan adierazi egingo da baztertutako izangai bakoitzaren kasuan zeintzuk izan diren baztertzeko arrazoiak.

Interneten argitaratu eta biharamunetik Aurrera Baztertutako pertsonak eta argitaratutako datuetan akatsen bat atzematen duten pertsonak hamar laneguneko epea izango dute erreklamazioak aurkezteko, eta, hala dagokionean, egindako akatsak zuzendu daitezela eskatzeko, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68.1 artikulua arabera.

Ez bada erreklamaziorik aurkezten, behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtu dela ulertuko da. Aurkeztutako erreklamazioak onetsi edo ezetsi egingo dira onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtzen duten erabakian, zeina publiko egingo baita aurreko paragrafoan aipatutako helbide elektronikoetan.

7.2 Erreklamazioak egiteko epea amaitu eta haiek ebatzi ostean, Arabako Batzar Nagusietako Mahaiak Erabaki bate mango du, zeinaren bidez onartuko baitira txanda bakoitzeko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak, behin-behineko zerrendetan jasotako datu berberekin.

7.3 Probak egiten diren egunean oraindik ebatzi gabe badaude onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onartzeko Erabakian prozesutik baztertuta agertu ziren izangaiek aurkeztutako errekurtsioak, eragindako pertsonak proba horiek egin ahal izango dituzte, baina ez dira kalifikatuko errekurtsio horiek ezesten badira

7.4 Edonola ere, interesdunek hautaprobetarako eskatzen diren betekizunak betetzen dituztela aitortzeko baldintza da haiek egiaztatzea 12. oinarriaren arabera aurkeztu behar diren agiriak aurkeztea; agirien bidez egiaztatu ezean, interesdunak galdu egingo ditu hautaketa-prozesuan parte hartzeak ekar ditzakeen eskubide guztiak

## **8.- KALIFIKAZIO EPAIMAHAIK**

8.1 Izendapena:



Arabako Batzar Nagusietako Mahaiaren erabaki bidez izendatuko dira hautaketa-probak kalifikatuko dituzten epaimahaietako kideak. Izendapenak Arabako Batzar Nagusietako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira onartutako eta baztertutako izangaien zerrenda onetsitakoan.

## 8.2. Osaera:

**Oro har**, epaimahaiek lehendakari bat eta lau kide izango dituzte, bakoitza bere ordezkorekin, eta karrerako funtzionarioak izango dira. Kideetako bat idazkari izendatuko da.

**Hala ere, beharrezkotzat jotzen bada, deialdi zehatz baten oinarri espezifikotan berariaz ezarri ahal izango da epaimahaia kide gehiagok osa dezatela, betiere oinarri orokor hauetan osaerari dagokionez ezarritakoak errespetatuta.**

Epaimahaietako kide izatea norberaren izenean izango da beti, eta inola ere ez beste inoren ordezkari gisa edo beste inoren kontura.

Epaimahaia osatzean errespetatu egingo da espezialitatearen printzipioa, zeinaren arabera epaimahai bakoitzeko kideen erdiek, gutxienez, sartzeko eskatzen den jakintza arlo bereko titulu bat izan behar baitute, eta guztiek ikasketa maila bereko edo goragoko titulu bat.

Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak kide bat izendatuko du (Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 31.2 artikulua).

Halaber, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen, Emakume eta Gizonen arteko berdintasunari buruzkoaren 20.4 artikuluan jasotako ordezkartza orekatuaren printzipioa ere bermatuko da.

Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeari kalifikazio-epaimahaietan dagokion ordezkartza kalitetan joan Gabe, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak ordezkari bat ere kalifikazio-epaimahaietako kide izango da, baina soil soil deialdi espezifikotan eskatzen den hizkuntza-eskakizunak egiaztatze probak egin eta ebaluatze aldera.

Epaimahaia aholkulari lanak egiteko pertsonen laguntza izatea erabaki ahalko du, haien espezialitate teknikoak erabili ditzaten hautatze-prozesuetako proba batzuen edo guztien ebaluazioan aholkuak emateko.

## 8.3 Abstentzia eta errekusatzea:

Epaimahaikideek ez dute egiteko horretan jardungo baldin eta urriaren bateko 40/2015 Legeak, sektore publikoaren araubide juridikoarenak, 23. artikuluan aipatutako egoeraren batean badaude, eta horren berri eman beharko diote Arabako Batzar Nagusietako Mahaiari.

Era berean, aurreko paragrafoan adierazitako egoeraren bat gertatzen bada, interesdunek epaimahaikideak errekusatu ahal izango dituzte, edozein unetan, bat etorri aipatutako lege testuaren 24. artikuluan ezarritakoarekin.

## 8.4 Epaimahaikideak oinarrietara lotzea:

Epaimahaia lotuta geratzen dira oinarri orokor hauetara eta kalifikatu beharreko probetako hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri espezifikotara.

## 8.5 Jarduteko arauak:

Epaimahaia, beren jardunean, urriaren 1eko 40/2015 Legeak, sektore publikoaren araubide juridikoarenak, 15. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako arauetara lotuko dira.



Edonola ere, hautaprobak hasi aurretik eta garaiz bilduko dira, lehendakariaren aginduz idazkariak bilera deia eginda, eta, behar bezala eratzeko, lehendakaria eta idazkaria, edo horien ordezkioak, eta kideen erdiak bildu behar dira, gutxienez.

Erabakiak bertaratu direnen botoen gehiengoz hartuko dira. Epaimahaikide guztiek izango dute hitza eta botoa. Berdinketak lehendakariaren kalitate botoaren bidez ebatziko dira.

Lehendakaririk eta bere ordezkorik ez badago, kanpoan edo gaixorik badago, edo legezko beste arrazoiren bat badago, maila, antzinasun eta adin handiena duen epaimahaikideak ordeztuko du, betiere ordena horretan.

Idazkaririk eta bere ordezkorik ez badago, kanpoan edo gaixorik badago, edo legezko beste arrazoiren bat badago, epaimahaikide gehiengoz erabakitzen duen kideak ordeztuko du.

## 8.6 Ahalmenak:

Epaimahaiek autonomia funtzional osoz jardungo dute, prozeduraren legezotasuna zainduko dute eta haren objektibotasuna bermatzeko ardura izango dute.

Halaber, deialdiaren oinarrien interpretazioari dagokionez sortzen diren zalantzak eta auziak ebatziko dituzte, aplikatu beharreko arau eta legeetan edota oinarrietan jaso ez diren alderdiak argitzeko nahiz hautatze-prozesua era egokian bideratzen dela zaintzeko.

Epaimahaiek hautatze-prozesuaren edozein unetan eskatu ahalko du deialdian zehaztutako betekizunak egiaztatzea; horretarako, 10 laneguneko epea emango du eta izangaietako batek betekizunak egiaztatzen ez baditu, edo epe horretan ez badu egiaztatzen, baztertzea proposatuko zaio Arabako Batzar Nagusietako Mahaiari, interesdunari entzun ostean eta baztertzeko arrazoiak azalduta.

Epaimahaiek beharrezko neurriak hartu behar dituzte oposizio-faseko idatzizko ariketen edukien konfidentzialtasuna bermatzeko eta ariketak zuzentzen direnean izangaien identitatea gordetzen saiatzeko.

Ariketak ez direnean modu mekanizatuan zuzentzen, epaimahaiek baztertu egingo dituzte ariketetan haien identitatea jakiteko aukera ematen duten markak edota ikurrak ipini dituzten izangaiak.

## 8.7 Kalte-ordainak

Epaimahaietan parte hartzeko asistentziek eta kolaborazioek eskubidea emango dute **Arabako Batzar Nagusietako Mahaiak onartutako erregulazioan** jasotzen diren kalte-ordainak hartzeko. **Erregulazio propiorik ezean, aplikagarria izango da** zerbitzu-arrazoiengatik kalteordainei buruzko Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan ezarritakoa.

## 9.- DEIALDIA, JAKINARAZPENAK ETA INFORMAZIOA

9.1 Hautaprobak ez dira hasiko eskaerak aurkezteko epea amaitu eta bi hilabete baino lehen.

9.2 10.2.1 oinarriaren arabera oposizio aldia osatuko duten ariketetako lehenengoa egiteko, Arabako Batzar Nagusien web orrian <https://www.jiggalava.eus/es/portal-empleo-publico> eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearenean [www.ivap.euskadi.eus](http://www.ivap.euskadi.eus) argitaratuko da deialdia. Hautaketa prozesuko gainerako komunikazio eta jakinarazpenak modu berean emango dira argitara.

9.3 Deialdien informazio orokorra hemen egongo da, interesdunen eskura:



Internet: [www.jjggalava.eus](http://www.jjggalava.eus) eta [www.ivap.euskadi.eus](http://www.ivap.euskadi.eus)

Arabako Batzar Nagusiak

Vicente Goikoetxea 2, Vitoria-Gasteiz

9.4 Izangaiak hala nahi badu, SMS eta/edo posta elektronikoko bidez jaso ahal izango du dagokion deialdiko ariketak egingo diren egunen eta berak lortutako emaitzak argitaratuko diren egunen gaineko informazioa, baldin eta hautu hori espresuki egin bada hautaketa prozesuan parte hartzeko aurkeztutako eskaeran, eskaera eredu ofizialean adierazitako moduan. Jakinarazpen hauek osagarriak izango dira; ondorio guztietarako baliagarriak diren bakarrak aurreko puntuetan adierazitako bitartekoen bidez argitara emandakoak izango dira.

## 10.- HAUTATZEKO PROZEDURA

10.1 Hautaketa prozedura oposizio-lehiaketa izango da, deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoek ezartzen dutenaren arabera, eta praktika eta prestakuntza aldia egon daiteke hautaketa prozesuaren beste zati baten gisa.

10.2 Oposizio-aldiko ariketak:

10.2.1 Oposizioaldiak deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan adierazten diren ariketak izango ditu. Informatika eta mekanografia ezagutzako ariketak egin litezke.

10.2.2 Lehenengo ariketa, edo bakarra, deialdiaren arabera, egiteko lekua, eguna eta ordua Arabako Batzar Nagusien web gunean <https://www.jjggalava.eus/es/portal-empleo-publico> eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearenean [www.ivap.euskadi.eus](http://www.ivap.euskadi.eus) emango dira argitara.

10.2.3 Txanda bakoitzeko izangaiei deialdi bakarra egingo zaie ariketa bakoitzerako. Aparteko egoerak justifikatu egin beharko dira, eta dagokion epaimahaiak ebaluatuko ditu. Identifikaziorako, izangaiak probetara agiri hauetako batekin joango dira: NANA, pasaporte eta gidabaimena, edo agiri baliokidea atzeritarren kasuan.

10.2.4 **Oro har**, ariketa baten emaitzak argitaratzen direnetik hurrengo hasi arte gutxienez hirurogeita hamabi ordu igaro beharko dira, eta gehienez berrogeita bost egun baliodun. **Horrek ez du baztertzen ezen, epaimahaiak beharrezkotzat joz gero, oinarri espezifikoetan ezarri ahal izango da saio berean aldi berean ariketa batzuk egiteko aukera, edo ariketa baten zatiak egun ezberdinetan. Horretarako, deialdia gutxienez bost egun natural lehenago egin beharko da.**

10.2.5 Izangai guztiek batera egin ezin ditzaketan ariketetan, jarduteko ordena Administrazio Publikoen Estatu Idazkaritzak egiten duen zozketaren arabera izango da, bat etorritik martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuak, langileak Estatuaren Administrazio Orokorraren zerbitzura sartzeko, Estatuaren Administrazio Orokorreko lanpostuak hornitzeko eta funtzionario zibilen sustapen profesionalerako Arautegi Orokorra onartzen duenak, 17. artikuluan ezarritakoarekin.

**Hala eta guztiz ere, deialdi espezifiko bakoitzean gertatzen diren inquirubarrak direla-eta, kalifikazio-epaimahaiak erabaki ahal izango du, izangaiak proba horietan zein hurrenkeratan arituko diren zehazteko zozketa bat egitea. Zozketa hautaketa-prozesuaren edozein unetan egin ahal izango da, baita proba edo ariketa egiten den egunean bertan ere. Aukera hau berariaz jaso beharko da deialdiaren oinarri espezifikoetan.**

Izangaien artean ez badago inor lehenengo abizena zozketa horretan atera den letratik hasten zaiona, jarduteko ordena segidako hurrengo letren arabera izango da, dagokion moduan.



10.2.6 **Oro har**, ariketa bakoitzeko behin-behineko emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, izangaiek hamar egun baliodun izango dituzte ariketa horren gainean egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko epaimahai kalifikatzaileari.

**Hala ere, deialdi zehatz baten oinarri espezifikoetan berariaz ezarri ahal izango da epe laburrago bat ariketa bakoitzeko erreklamazioak egiteko, betiere ez bada hiru egun baliodun baino txikiagoa.**

Erreklamazioak egiteko epea amaitu eta, halakorik badago, aurkeztu direnak ebatzi ostean, epaimahaiak ariketa bakoitzeko behin betiko emaitzak argitaratzeko agindua emango du.

10.2.7 Deialdi bakoitzak bi gai zerrenda izango ditu: bata komuna, plazaren titulazio taldeari dagokiona, eta bestea espezifikoa, plazari berari dagokiona.

### 10.3 Euskara

#### 10.3.1 Euskararen egiaztapena

Euskararen ezagutza betekizuna izango da derrigortasun-data iraungita duten lanpostuetan.

Hizkuntza-eskakizuna egiaztatze mugaeguna izango da hautatze-prozesu desberdinetarako aurreikusi den lehenengo euskara deialdi bateratuaren barruko lehenengo probaren egun berbera.

Hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatua duten eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatu gisa jasoak dauden izangaiek ez dute egiaztatu beharko; hortaz, parte-hartzaileak esan bidezko baimena emango die Arabako Batzar Nagusiei aipatutako erregistroan beharrezko datuak egiaztatze

Hala ere, Erregistro horretan jasota ez dagoen beste edozein euskara-titulu edo –egiaztagiri, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua aldatzen duen uztailaren 4ko 187/2017 Dekretuaren arabera baliozkotua, zeinaren bidez euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.

Hizkuntza-eskakizunak apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuestekoan xedatutakoari jarraituz egiaztatu nahi dituztenek, dagokion ziurtagiri akademikoa ere aurkeztu beharko dute.

Horretarako, hizkuntza-eskakizuna egiaztatze probak egin aurretik, kasuan kasuko kalifikazio-epaimahaiak epe bat emango du izangaiek aipatu Erregistroan jasota ez diren euskara tituluak edota ziurtagiriak eta aipatutako ziurtagiri akademikoak aurkez ditzaten.

#### 10.3.2 Euskara-ariketa:

hizkuntza-eskakizunak egiaztatze probak egingo dira, zeintzuk nahitaezkoak izango baitira derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna egiaztatua ez dutenentzat. Probak borondatezkoak izango dira derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna baino altuagoa egiaztatu nahi denean.

Kalifikazio-epaimahaiak erabakiko du euskara ariketa zer unetan egingo den, baina, nolahi ere, oposizio-fasearen azken ariketaren emaitzak argitara ematen diren egunetik hurbilen dagoen deialdi bateratuan egingo da.

Ariketa bakoitzeko behin-behineko emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, izangaiek hamar egun baliodun izango dituzte ariketa horren gainean egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko epaimahai kalifikatzaileari.

Erreklamazioak egiteko epea amaitu eta, halakorik badago, aurkeztu direnak ebatzi ostean, epaimahaiak ariketa bakoitzeko behin betiko emaitzak argitaratzeko agindua emango du.





#### 10.4. Ezagutza informatikoak eta mekanografia

Informatika eta mekanografiako ezagutzen egiaztapena baloratuko da Euskadi Informazioaren Gizartean Planak KZGunea zentro publikoetan IT Txartela egiaztapen-sistemaren bidez zuen esku jartzen dituen moduluak lortzearen bitartez.

Tecnalia Research & Innovation-erregistroetara sartzeko onespina.

Hala nahi duten pertsonak beren eskabidean baimena eman dezakete Arabako Batzar Nagusiak egindako alegazioaren zehaztapena egiaztatzeko beharrezkoak diren erregistroetara sar daitezten, eta egiaztatetik salbuetsita geratuko dira. Baimen hori ematen ez dutenek agiri bidez egiaztatu beharko dituzte ezagutza horiek, ezarritako epeen barruan.

IT Txartela egiaztagiria lortzea:

Ziurtapen-proba egin ahal izateko, izena eman beharko dute egiaztatutako zentro batean. Zentroen zerrenda oso honako helbide elektroniko honetan kontsultatu daiteke: [www.it-txartela.net](http://www.it-txartela.net)

Probak egiaztapena jaulkitzen duen zentroak ezarritako arauen arabera egin eta kalifikatuko dira.

Deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoek betekizun gisa zehaztutako informatika eta mekanografiako ezagutzak lehen ariketa egiten den data baino lehen egiaztatu beharko dira. Eskatutako IT Txartelak egiaztatzen ez dituzten pertsonak hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira.

Deialdi bakoitzean meritutzat jotzen diren informatika eta mekanografiako ezagutzak meritutak aurkezteko epean aurkeztu eta egiaztatu beharko dira.

#### 10.5 Lehiaketa-aldia

10.5.1 Lehiaketa aldia izangaiek alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduak aztertu eta baloratzea izango da, eta haietako bakoitzari dagozkion puntuak esleitu zaizkio, deialdian zehaztutako baremoaren arabera.

Oposizio aldiko azken ariketaren behin-behineko emaitzak argitaratu ostean, hamar egun balioduneko epea ezarriko da oinarri espezifikoetan aipatzen diren merezimendu konputagarriak alegatu eta, hala badagokio, egiaztatzeko, euskara jakitearenak izan ezik; izan ere, hori egiaztatuko da 10.3 oinarrian jasotzen denaren arabera egiaztatuko da.

Aurreko paragrafoan adierazitako agiriak Arabako Batzar Nagusietako Idazkaritza Nagusian entregatuko da, Vitoria-Gasteizko Vicente Goikoetxea 2 kalean.

Salbuespenez, onartzeko eskabidea eta gainerako agiriak Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua arabera aurkeztu ahal izango dira. 39/2015 Legeak erregistro elektronikoaz xedatzen duenak ondorioak ez dituen bitartean, onartzeko eskabidea Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusita lekuetan aurkeztu ahal izango da.

Ez dira inola ere baloratu ahal izango aurkezteko epearen barruan behar bezala alegatu eta egiaztatu ez diren meritutak.

Merezimenduak egiaztatzeko agiriak jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak izan beharko dira.

Igarotako denboraren arabera, urteka, sei hilekoka edo hilabeteka baloratzen diren merezimenduak alegatutako aldiak egunak batuta konputatuko dira eta, behin batura hori eginda, erreferentzia aldia baino frakzio txikiagoak alde batera utziko dira. Ondorio horietarako, urte gisa hartuko da 365 egun naturalen batura, sei hileko gisa 180 egun naturalen batura eta hilabete gisa 30 egun naturalen batura.

Lehiaketa aldiak ez du baztertzeko izaerarik izango eta bertan eskuratutako puntuak ezingo dira kontuan hartu oposizio aldiko probak gainditzeko.



10.5.2 Alde batera utzita oinarri espezifikoetan betekizuntzat jotako euskara eta informatika eta mekanografia ezagutzak jasotzeko uneen gainean ezarritakoa, gainerako merezimenduei dagokienez, soilik konputatuko dira eskaerak egiteko epearen azken egunari erreparatuta.

Interesdunek Arabako Batzar Nagusietan egindako zerbitzuak alegatu egin beharko dituzte, baina ez dituzte egiaztatu beharko. Ofizios konputatuko ditu administrazio horrek.

Gainerako administrazio publikoetan egindako zerbitzuak I. eranskineko eredian egiaztatu beharko dira, administrazio publikoan aurretik emandako zerbitzuak aitortzeko abenduaren 26ko 70/1978 Legea aplikatzeko arauak emateko den ekainaren 25eko 1461/1982 Errege Dekretuaren arabera. Betiere xehatu egin beharko dira lan egindako aldiak, aldi horiek zein kidego edo eskala, azpieskala eta klase edo kategoriatan egin diren zehaztuta.

Kasuan kasuko kalifikazio-epaimahaiak emandako zerbitzuen ziurtagirian jasotako datuen informazio osagarria eskatzea dauka.

Euskal Autonomia Erkidegoko foru eta toki administrazioan egindako zerbitzuak baliokide joko dira, uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuak, euskal administrazio publikoetako kidego eta eskalen arteko baliokidetzak finkatzen duenak, ezarritako moduan, eta otsailaren 25eko 1/2004 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako kidegoak eta eskalak antolatzeak, xedatutakoaren kalterik gabe.

10.5.3 Deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan hala jasota badago, eta ezartzen diren baremoen arabera, haietan finkatzen diren informatika eta mekanografia ezagutzen mailak egiaztatzea baloratuko da Euskadi Informazioaren Gizartean Planak KZGunea zentro publikoetan IT Txartela egiaztapen-sistemaren bidez zuen esku jartzen dituen moduluak lortzearen bitartez.

10.6 Hautaketa-prozesuaren azken kalifikazioa:

Oposizio aldiko ariketak deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan xedatzen denaren arabera kalifikatuko dira.

Lehiaketa aldiko merezimenduen balorazioa deialdiaren oinarri espezifikoetan jasotako baremoen arabera esleitutako puntuen batura izango da.

Hautaketa prozesuko azken kalifikazioa oposizio aldian eta lehiaketa aldian lortutako puntuen batura izango da.

Berdinketa gertatzen bada, lehentasuna emango zaie emakumeei, emakumeak ehuneko 40 baino gutxiago diren eskala, azpieskala eta klaseetan, salbu eta beste izangaiengan, sexuagatik bereizkeriazkoak izan gabe, neurri hau ez aplikatzea bidezko egiten duen arrazoirik izanez gero, hala nola enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten beste gizatalde batzuetakoak izatea.

Aurreko lerroaldean ezarritakoa gorabehera, berdinketa hausteko lehentasun ordena hurrenez hurren irizpide hauei jarraituz ezarriko da:

- 1) Oposizio aldian puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
- 2) Oposizio aldiko eduki teoriko-praktikoko probetan puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
- 3) Oposizio aldiko lehenengo ariketan puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
- 4) Lehiaketa-aldian puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
- 5) Oposizio-aldiko bigarren ariketan edo ariketa bakarrean asmatze gehien egin dituenaren alde.
- 6) Administrazio publikoetan lan egindako denbora luzeena egiaztatu duenaren alde, baldin eta denbora hori, deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoaren arabera, lehiaketa aldian baloratu beharreko merezimendua bada.

Behin aurkeztutako eta egiaztatutako merituen balorazioa eginda, dagokion epaimahaiak azken kalifikazioen zerrendak egingo ditu, puntuazio-hurrenkeraren arabera.



Behin betiko kalifikazio horiek argitaratzen diren egunaren biharamunetik aurrera, interesdunek hamar laneguneko epea izango dute kalifikazio epaimahaiaren aurrean egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko, baina soil-soilik lehiaketa-faseari dagozkionak eta, kasua bada, berdinketak apurtzeko irizpideei dagozkienak.

## 11. LANGILEAK HAUTATZEA

11.1 Erreklamazioak aurkezteko epea agortutakoan eta aurkeztu direnak ebatzi ostean, epaimahai bakoitzak agindua emango du hautatutako pertsonen eta eskainitako postuen zerrendak argitaratzeko, eta hamar laneguneko epea emango du izangaiek postu horien lehentasun-hurrenkera adierazi dezaten. Helburuen lehentasun-hurrenkera garaiz eta behar bezala adierazi ezean, hurrenkera horretako azken lekura igaroko da.

11.2 Hamar laneguneko epe hori agortutakoan, kasuan kasuko epaimahaiak praktiketako funtzionarioaren izendapen-proposamena egingo du, hautatutako izangai bakoitzari dagokion helburu-lanpostua adierazita, bakoitza honako irizpide hauen arabera: izangai bakoitzaren puntuazio-hurrenkera, eskainitako lanpostuen artean adierazi den lehentasun-hurrenkera eta lanposturako eskatutako betekizunak betetzea.

## 12. AGIRIAK AURKEZTEA

12.1 Prozesuaren emaitza jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta, 20 laneguneko epea emango da hautatutako pertsonen jarraian ageri diren dokumentuak aurkez ditzaten prozesu bakoitzaren oinarri espezifikoetan zehaztutako tokian eta baliabideak erabiliz, baldin eta dagokion epaimahaiak 8.6 oinarrian ezarritakoaren arabera aurretik eskatu ez baditu. Honako hauek dira:

- a) NANaren fotokopia konpultsatua.
- b) Arabako Batzar Nagusiek jakinarazpen bat bidaliko diete izangai atzerritarrei, euren egoeraren arabera nahitaez aurkeztu behar duten dokumentazio zehatza adierazteko.
- c) Eskala, azpieskala eta klase bakoitzean sartzeko eskatzen diren eta deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan adierazten diren tituluen fotokopia konpultsatua.
- d) Zinpeko adierazpena, zeinetan adieraziko den izangaia ez dagoela funtzio publikoak betetzeko gaitasunaz gabetua, ez dela diziplina-espedita bidez baztertu administrazio publikoetan zerbitzuak emateko, eta ez duela abenduaren 26ko 53/1984 Legean, Administrazio Publikoen Zerbitzura diharduten Langileen Bateriaezintasunei buruzkoan jasotako bateraezintasunik edo ezintasunik.
- e) Nazionalitate espainiarra ez duten izangaiek zinpeko adierazpen bat aurkeztuta adierazi beharko dute haien estatuan ez zaiela ezarri funtzio publikoan sartzeko eragozten dien diziplina zigorrak edo zigor penalik.

Halaber, oinarri hauekin eta deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoekin bat, egiaztatu egin beharko dute ez dutela dagozkien eginkizunak betetzea eragozten dien urritasun edo akats fisiko edo mentalik. Horretarako, Arabako Batzar Nagusiek zehaztutako zerbitzuetan bideratuko diren osasun azterketak eta probak igaro beharko dituzte.

12.2 Oinarri hauetako aurreko puntuetan aipatutako egiaztagiria eta ziurtagiriak jatorrizko dokumentuak edo kopia konpultsatuek izan beharko dira.



12.3 Behar bezala justifikatzen bada ezin direla dokumentu horiek aurkeztu, Zuzenbidearen arabera onargarria den edozein bide erabilita egiaztatu ahalko du izangaiak deialdian eskatzen diren baldintzak betetzen dituela.

12.4 Aurkezteko lekua:

Aurreko agiriak Arabako Batzar Nagusien egoitzan aurkeztuko dira, Vitoria-Gasteizko Vicente Goikoetxea 2 kalean (01008 PK).

12.5 Agiriak ez aurkeztea:

Nahitaezko kasuak alde batera utzita, dokumentazioa adierazitako epearen barruan aurkezten ez dutenek edo dokumentazioa aztertu ostean ondorioztatzen bada ez dutela 2. oinarrian zehaztutako betekizunetako bat betetzen edo eginkizunak betetzeko beharrezkoa den gaitasun funtzionala ez dutenek ezingo dira karrerako funtzionario izendatu, eta, beraz, haien jarduketa oro baliogabetuko da, baina, hala eta guztiz ere, instantzian datu faltsuak adierazteagatik izan litzaketen erantzukizunak eskatu ahalko zaizkie.

Kasu horretan 11. oinarrian eta hurrengoetan adierazitako pausoak errepikatuko dira, eta ez dira aintzat hartuko aurreko paragrafoan azaldutako arrazoiengatik hautaketa-prozesutik kanpo geratu diren izangaiak. Hala ere, aurreko jarduketan errepikapena diren jarduketak egitea saihestuko da, eta beraz ez zaie 12. oinarrian adierazitako dokumentazioa eskatuko dagoeneko aurkeztu dutenei, eta mediku-azterketak egin dituztenek ere ez dute berriz halakorik egin beharko.

Arrazoi berberengatik baztertzeko gehiagorik balego, aurreko paragrafoan adierazitako prozesua berriz egingo litzateke, eta hala hurrenez hurren, harik eta hautatutako ezain pertsona ez dadin baztertua izan azaldutako arrazoiengatik.

### 13. PRAKTIKA- ETA PRESTAKUNTZA-ALDIA

Arabako Batzar Nagusietako Mahaiak Erabaki bat emango du praktiketako funtzionarioen izendapena onesteko, izangai bakoitzari dagokion lanpostuarekin.

Erabakia argitara emango da Arabako Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean, Arabako Batzar Nagusien web orrian <https://www.iiggalava.eus/es/portal-empleo-publico> eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen web orrian [www.ivap.euskadi.eus](http://www.ivap.euskadi.eus).

Zereginak betetzeko gaitasun funtzionala egiaztatzeko proba eta azterketa medikoak egiteko deialdia era pertsonalizatuan egingo da.

Oro har, praktika- eta prestakuntza-aldiak gehienez honako iraupena izango du:

- sei hilabete A taldeko deialdietarako; edonola ere, beharrezkoa izango da lanpostua gutxienez 398 orduko presentzia efektiboa betetzea.
- lau hilabete C taldeko deialdietarako; edonola ere, beharrezkoa izango da lanpostua gutxienez 265 orduko presentzia efektiboa betetzea.

Praktiketako funtzionarioa izendatzeko aurreikusitako egunean hautatutako pertsona aldi baterako ezintasun egoeran edo amatasun edo aitatasun lizentziarekin badago, izendapena geroratu egingo da harik eta medikuaren alta jaso arte edo lizentzia bukatu arte.

Praktika-aldirako lortutako destinoak behin-behinekoak izango dira.

Praktika eta prestakuntza aldia ebaluatu eta kalifikatu egingo da, aldagai hauek baloratuz:



- Egitekoak eta eginbeharrak betetzea.
- Lanaren kalitatea.
- Ikasteko jokoerak.
- Ekimena.
- Erantzukizuna eta egokitzea.
- Elkarlanerako jokoerak.
- Herritarrekiko eta lankideekiko harremanak.

Praktika eta prestakuntza aldia baloratzeko, ebaluazio batzorde bat eratuko da, lehendakari batez eta bi kidez osatua, guztiak ere karrerako funtzionarioak.

Ebaluazio-batzordea honela eratuko da:

- Lehendakaria: Arabako Batzar Nagusietako Idazkaritza Nagusiko burua, edo hari eskuordetza ematen dio karrerako funtzionarioa.
- Bi kide, Arabako Batzar Nagusietako karrerako funtzionarioak izango direnak. Bi kideek administrazio horretako beste karrerako funtzionario batzuen esku utz ditzakete beren eginkizunak.

Bi kideetako batek idazkari-lanak egingo ditu.

Ebaluazio batzordearen osieran, ordezkaritza orekatua bermatuko da trebetasun, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen artean.

Ebaluazio batzordeak epaimahaiarentzat ezarritako dauden funtzionamendu arau berberekin jardungo du, eta praktika eta prestakuntza aldia "Gai" edo "Ez gai" kalifikazioekin baloratuko du.

Praktika-aldia bukatzean, lanpostua dagoen unitate administratiboaren arduradunak praktikaaldiaren ebaluazioa egingo du eta ebaluazio horren emaitza ebaluazio batzordeari jakinaraziko zaio, eta, emaitza negatiboa bada, baita interesdunari ere.

Ebaluazio-batzordeak dagokion kalifikazio-epaimahaiari helaraziko dio praktika- eta prestakuntza-aldia gainditu duten pertsonen zerrenda. Zerrenda hori loteslea izango da Kalifikazio Epaimahaiarentzat.

Kalifikazio-epaimahaiak Arabako Batzar Nagusiko Mahaiari igorriko dio karrerako funtzionarioak izendatzeko proposamena.

Praktika- eta prestakuntza-aldia gainditu ezean, Arabako Batzar Nagusiko Mahaiaren erabaki arrazoitu bidez, izangaiak karrerako funtzionario izendatzeko dituen eskubide guztiak galduko ditu.

#### **14.- KARRERAKO FUNTZIONARIOAK IZENDATZEA ETA KARGUAZ JABETZEA**

Arabako Batzar Nagusiko Mahaia, erabaki bidez, Arabako Batzar Nagusietako karrerako funtzionarioak izendatuko ditu eta esango du zein lanposturi atxikita dauden.

Erabakia argitara emango da Arabako Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean, Arabako Batzar Nagusien web orrian [www.jjggalava.eus](http://www.jjggalava.eus) eta Herri Ardulararitzaren Euskal Erakundearen web orrian [www.ivap.euskadi.eus](http://www.ivap.euskadi.eus).

Izendatuek hilabeteko epean hartu behar dute jabetza karrerako funtzionario gisa, izendapena egiten duen foru agindua ALHAON argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera.

Epe hori hamabost egun naturalez luza daiteke, izendatuak hala eskatu eta arrazoi justifikatua badago

Ezarritako epean jabetza hartzen ez dutenek, eta ezinbesteko kasuetan salbu, galdu egingo dituzte deialdiaren ondoriozko eskubideak Arabako Batzar Nagusietako funtzionario izaera eskuratzeko



Kasu horietan, bai eta izendatu edo karguaz jabetu aurretik hautatutako pertsonak uko egiten duten kasuetan, edo karguaz jabetzeko unean lanpostua gorde gabeko eszedentzia eskatuz gero, dagokion epaimahaiak, behin bakarrik, izendapen proposamen osagarri bat egingo du, hautaketa-prozesuaren azken kalifikazioaren puntuazio ordenaren arabera hala dagokien izangaien alde,

## **15.- DEIALDIA AURKARATZEA**

Deialdia, oinarriak eta oinarriotatik zein epaimahaien jardunetatik datozen administrazio-egintza guztiak aurka ditzakete interesdunek, betiere, aurriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak jasotako kasu eta moduetan.

## **16.- ALDI BATERAKO LAN-POLTSA**

Behin deialdiak ebatzita, oposizio-faseko ariketak gainditu dituzten izangaien kopurua deitutako plazena baino handiagoa bada, ariketak gaindituta ere plaza barik geratu diren izangaiekin lan-poltsak eratuko dira. Lan-poltsa horiek aldi baterako langileria-beharrei erantzuteko erabiliko dira, eta Arabako Batzar Nagusietako lan-poltsak arautzeko araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira.

